



2013KO OTSAILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko otsailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpiak eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel eta Juan Manuel Serna Portugal.

Milagros Madrazo Rada eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko urtarrilaren 31an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

III.- ITURGAITZAGAKO ERROTONDA LANEN 6. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 6. obra-egiaztagiria luzatu du. Lanen 6. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa LAUROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ET BOST EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMOTAKO (84.805,50 €) da. Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 6. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.



IV.- KANPANDEGIKO ERROTONDA LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

"21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 2. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 2. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa HIRUROGEITA HIRU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMOTakoa (63.329,13 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 2. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia bilkurara itzultzen da.

V.- H.J.A. 12KO -ENPAUNDI- PLAN PARTZIALA.-

Udal honetan Fernando Carazo Amundarain jaunak, jabe erkidegoa ordezkatzuz, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 12 - "ENPAUNDI" Hirigintza Jarduketa Areako Plan Partziala aurkeztuta, behin behineko izaeraz onartua izan zen Alkatetzaren 2011-03-22ko ebazpenaren bidez, ondoren hartutako erabakitik eratorritako izapideak betetzeari ekin zelarik.

Aipatutako xehetasunezko planeamenduko dokumentuaren edukiak aztertuta, ondorengo aurreikuspenak nabarmendu behar dira:

- Babes publikoko erregimen baten eraginpeko etxebizitzak barne izango dituzten partzelak eraikigarrien kokapena 10 - "ARESO-SAN IGNACIO" H.J.A.tik ahalik eta gertuen egon beharko dute, etxebizitza libreak jasoko dituztenak proposatutako kokapenetik "dentsitate baxukoak" bezala kalifikatutako eraikinak kokatu eta kontsolidatzen diren inguruetara lekualdatuz.
- Azalerako aparkalekuei dagokienez, eta egiteko asmoa dagoen etxebizitza guztiak eremuko iparraldean kokatzen direnez, eremu horretan bertan kokatu beharko dira ere, hegoaldean proiektatutakoen kopurua beharrezko gutxienera murriztuz (GI - 2120 errepidearen beste aldean). Aparkalekuen zenbaketan ez dira kontutan hartuko gaur egun daudenak.
- Etxebizitzen gunea eta eremuko hegoaldearen arteko konexiorako, bidegorri eta oinezkoentzat lurpeko pasabide bat aurreikusi beharko da saihezbidearen azpitik.
- 12 - "ENPAUNDI" Hirigintza Jarduketa Areako mugen barruan Begiristain ubidea iragaten da, GI - 2120 errepidearen parean gainezkatze arazoak eragiten dituenak eta dokumentuak aipamenik egiten ez diona. Zentzu honetan, ubide hori "zeru irekian" iragan behar dela ulertzen da, gaur egungo gainezkatze arazoak ezabatze beharrezko ahalmenez hornituz. Beraz dokumentuaren ordenazioa aurreikuspen horretara moldatu beharko da, ubide horren gain igarobideak ere aurreikusi beharko direlarik bidegorri eta oinezkoentzat, hala elementu horien jarraitutasuna bermatuz.



- Ordenatutako partzela eraikigarrietan eraikinen okupazioak soto mailan eragotzi, edo behintzat zaildu egiten du neurri handi batean, eremuan baimendutako bizitegi-erabilpenek behar dituzten azpiegitura eta zerbitzuen ezarpena. Beraz, eta apartalekuen kontuetan indarrean dagoen araudiak dotazio mota hauentzat ezartzen dituen estandarrak errespetatuz, azpiegitura horien ezarpena ahalmenduko duten azalerak aurreikusi beharko dira, baina sotoan erabilpen pribaturik ez dituztenak.
- Azkenik, garajeetarako sarrera eta irteera aldapak alturan eraikuntzako lerrokaduren barne kokatu beharko dira, modu horretan gai honi buruz Plan Partzialak proposatutako soluzioek oinezkoetan eragiten dituzten etenaldiak ezabatuz.

Aipatutakoaren ondorioz, Udal Osoko Bilkurari ondorengo akordioa har dezan proposatzen zaio :

BAKARRA.- Fernando Carazo Amundarain jaunak, jabe erkidegoa ordezkatzuz, aurkeztutako 12 - "ENPAUNDI" Hirigintza Jarduketako Areako Plan Partzialaren behin betiko onarpena etetea, azalpen zatian zerrendatutako aldaketa eta moldaketak barneratzen dituen proposamen berri bat aurkeztu bitartean, eta baita aplikagarri zaion gainontzeko araudia ere.

Gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamen hau onartzea erabakitzen du.

VI.- MARTXOAREN 8A, EMAKUMEEN EGUNEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Mozioak honela dio:

"Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera honen aurrean, Lazkaoko Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztientzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.

Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko.

Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu, urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubideen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabiltzeko gaitasunik gabe eta bizi-modu prekario batera kondenatuta.

Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrena, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien -eta familien barruan, emakumeen-



esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekarietate handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.

Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoa- ren zuzeneko eragileak izango gara.

Gure ustez, xede horiek guztiak lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeen eskutik xede horretarako programak eta baliabi- deak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.

Gainera, Udal honek honako lehentasun hauek ere baditu:

- berdintasunerako politika publikoak garatzea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.
- programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekin- tza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.
- emakumeen elkarrekin eta mugimendu feministarekiko elkarrizketa politikoa indar- tzea.
- indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.

Azkenik, mugimendu feministak betidanik emakumeen eskubideen alde egindako erresis- tentzia eta borroka eskertu nahi dugu, eta, ildo horretatik, mugimendu horrek gure herri- an martxoaren 8rako egindako deialdiarekin bat egiten dugu."

Irastortza zinegotziak (EAJ) esaten du mozioaren bat egiten dutela eta beraz alde bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere mozioaren alde bozkatuko dute- la.

Gaia bozketan jartzen da eta Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, mozioa onartzea erabakitzen du.

VII.- SOZIALISTEN UDAL TALDEAK GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAK HAR- TUTAKO AKORDIOEN ONDORIOEI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Hondakinen Kontsortzioaren Batzarrak, 2013ko otsailaren 8an egindako bileran, Gipuzko- ako Foru Aldundiak erakunde horren baitan duen gehiengoaz baliatuz, zenbait erabaki hartu ditu. Aipaturiko erabakiek Gipuzkoako lurraldeko toki erakunde multzoaren herri ku- txei kalte larriak eragin diezaiekete.



Hartutako erabakiek lurraldeko plangintzan aurreikusitako hondakin-kudeaketaren azpiegitura finantzatzeko kontratuak ez betetzea izango lirateke, Hondakinen Kontsortzioak, ondorioz, ekonomi eta finantza eremuan eragin kritikoen arriskuak bere gain hartu beharko lituzke. Bidezko segurtasun juridikorik gabe, akordio eta adostasun politikorik gabe, eta elkartutako erakundeekin kontaktu gabe, esandako ekintzak aurrera aterako ez balira, aipatutako erakundeak nabarmenki kaltetuta aterako lirateke; erabaki hauek erakunde horretako fundazio oinarrien haustura suposatuz.

Bestaldetik, otsailaren 8ko bilera berean, Kontsortzioak, estatutu aldaketak eragiten dituen akordioak hartu zituen, eta hauek, praktikan, Txingudiko Mankomunitatea Kontsortzioran sartzea galarazten dute. Hau guztia epai judizial bat era interesatuan aplikatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak Kontsortzioraren Asanbladan duen gehiengo politiko eskasari eusteko helburu bakar eta nabarmenarekin, eta honek Bilduri aldebakarrean lanean jarraitzea baimentzen diolarik.

Hau dela eta, Udal Osoko Bilkurak ondorengo MOZIOA onartzen du:

Lehena.- Udalak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziorari, Lurraldeko hondakinen kudeaketaren inguruan etorkizunari buruz hartuko dituen erabakiak partekatzea eta adostea eskatzen dio, bereziki herri kutxei, orokorrean, eta konkretuki udal kutxei, ekonomiko eta finantza izaerako kalte larriak sor diezaieketenean.

Bigarrena.- Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziorari, Txingudiko Mankomunitatea Hondakinen Kontsortzioran erabat hasteari oztopo legal gehiagorik ez aurkeztea eskatzen die, Gipuzkoa osoko hiri hondakinen kudeaketa barne hartzeko bokazioa mantendu dadin."

Albisu zinegotziak (EAJ) esaten du mozioaren alde bozkatuko dutela.

Alkateak (Bildu) mozioaren aurka bozkatuko dutela esaten du. Gehitzen du beharrezkoa ikusten dutela aurreko legegintzaldian adostutako kontratua, kobertura kontratu gisa saldu dena, eta gipuzkoako gizartea larriki kaltetzen duen diru jariora moztea; esaten du baita ere Txingudiko gaiarena sententzia baten aplikazioa dela, eta epai hori aplikatu dutela baloraziorik egin gabe; eta bukatzen du esanez PSEri dei egiten diela hausnarketa egin dezan eta gaia ez dezala oztopatu, denon artean aurreko legegintzaldiko akatsak zuzentzen saiatzeko.

Albisu zinegotziak alkateak esandakoari erantzunez esaten dio guzti hori oso ondo dagoela baina mozioan eskatzen dena Txingudi GHKn egotea dela eta hori dela demokratikoa dena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) alkateak esandakoari erantzunez esaten du hausnarketan parte hartzen ari dela azken 30 urtetan.

Alkateak erantzuten die esanez garbi esan duela ez dutela baloraketarik egiten baizik eta epai bat betetzen dutela soilik.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Udal Bilkurak, aldeko 4 botu (EAJ, PSE-EE) eta aurkako 7 botuz (Bildu), mozioa atzera botatzen du.



VIII.- "197/2006 DOKTRINA: ZIGOR GEHIGARRIAREN ANKERKERIA"REN INGURUKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"2006an, Espainiako Auzitegi Gorenak, kode penal zaharrear epaituriko presoek zegozkien erredentzioak, kode hark ezartzen zuen bete beharreko gehienezko 30 urteei baino, ezarritako kondena osoari aplikatzeko doktrina ebatzi zuen. Hau da, 1973-ko kode penalak, kondena kunplitzeko gehienezko urte kopurua 30 urteetan ezartzen zuen eta erredentzioen bidez, bete beharreko urte kopurua jaisten zen. Erredentzioen aplikazioak bete beharreko kondena 15 urtetan ezartzen zuen automatikoki, eta horrez gain, erredentzio gehiago eskuratu zitezkeen ikasketekin edo bestelako jarduerekin, bete beharreko kartzealdi denbora jaitxiz.

1995ean eta 2003an kode penalaren aldaketak eman ziren. Aldaketa horiek euskal preso- en aurkako neurriak gogortzera bideraturik zeuden, preso diren pertsonen dagozkien esku- bideak salbuespenez murriztuz. 95-ean kondena betetzeko urte mugak 30, 25 eta 20 urte- etan ezarri, eta erredentzioak desagertu egin ziren. 2003-an berriz, kondena betetzeko muga 40 urtera igo zen.

Kode penal berriak ezarritako neurriak ez direnez erretroaktiboak, hau da, ezin direnez aplikatu aurretiaz epaituriko pertsonen aurka, Auzitegi Gorenak 197/2006 doktrina erabili zuen ateratzear zeuden euskal presoek kondena luzatzeko.

Ordutik hona, 83 euskal preso politikori ezarri zaie doktrina. Horietako 12, garaian ezarri- tako kondenaz gain doktrinaren kondena luzapena bete ostean atera dira kalera. Gaur egun, 67 dira doktrina hau aplikaturik kartzelan aurkitzen diren presoak. Horietatik 54 kondenaren luzapena ari dira betetzen, eta beste 13-ri doktrina aplikatu zaie ezarri zitzaie- en kondena bete aurretik. Beste 4 lagun kalean dauden, baina doktrina ezarria dute.

Doktrina honen bidez, euskal preso- en aurka bizi arteko zigorra aplikatzen da. Ondorioak aski krudelak dira, 95 izanik 20 urte baino gehiagoko espetxealdiak igaro dituzten perso- nak. Gaur egun 29 presok 25 urte baino gehiago daramazkete espetxean. Neurri honek, oinarritzko giza eskubide denak urratzen ditu. 20 urtetik gora espetxean emateak itzuliezi- nak diren ondorio fisiko eta psikologikoak dakartzala frogatuta dago.

ESPAINIAKO AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN EBAZPENA 197/2006 DOKTRINARI BURUZ

2012an Auzitegi Konstituzional espainolak, 2006an indarrean jarritako doktrinaren kontra- ko helegiteak ebatzi ditu, doktrinaren aplikazioa babestuz. Bere ebazpenean ez du doktri- naren funtsari buruzko azalpenik ematen eta irizpidea aldatzeko aukera, tribunalei dagoki- ela argudiatzen du.

Auzitegi Konstituzionalak, 47 erabaki jakinarazi ditu (beste 20 kasu erabakitzeke). Horie- tik 3 tramitera hartzea ukatuak izan dira, 22 tramitera onartuak, eta beste 3ren kasuan anparoa onartua izan da, hiru preso hauek kalera atera direlarik. Beste 19 kasu ukatuak izan dira.



ESTRASBURGOKO GIZA ESKUBIDEEN TRIBUNALAREN EBAZPENA

Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak ordea, Ines Del Río euskal presoaren kasuan oinarriturik, 197/2006 doktrina ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi zuen 2012ko uztailean. Ebazpena, AHO BATEKOA izan zen.

Tribunal honen ebazpenak, doktrinak, askatasunerako eta segurtasunerako oinarrizko eskubideak urratzen dituela dio, eta ez dela legezkoa aurrez ezarritako zigorra luzatzea. Ines del Río preso berehala aske uztea eta 30.000 euroekin kalte moralak berrezartzea ebazten du era berean.

Ebazpenaren eragina ez da Inesen kasura mugatzen, doktrinaren funtsa aztertu ondoren eta berau jotzen bait du, ez legezko. Horrek doktrina bera, bertan behera uzteko bidea zabaltzen du; formalki Espainiar gobernuaren esku dagoen erabakia da hori.

Edonola ere, Ines del Ríoen inguruko ebazpena LOTESLEA DA, Europako Giza Eskubideen Konbentzioaren 46. artikulua, ESTATUAK GORTEAREN EBAZPENAK ONARTZERA BEHARTZEN BAIT DITU.

Espainiako Estatuak helegitea tarteratu du. Helegite hau, Estrasburgoko giza Eskubideen Tribunalean berrikusiko da datorren martxoaren 20. Tarte horretan Ines del Río kartzelan mantentzera ere, espainiar estatuak egiten duen beste lege-hauste bat gehiago da.

Estatu batek Estrasburgoko Tribunalaren ebazpen bat ez onartzea eskandalu politiko eta juridiko izugarria da. Espainiar estatuak gai honen aurrean duen jarrerak agerian uzten du euskal presoaren aurka salbuespeneko legedia eta bitartekoak aplikatzen direla. Presoek eta beraien senitartekoez dituzten eskubideak urratuaz eta nazioarteko Giza Eskubideen Arauen ginetik pasaz.

Honen aurrean, Lazkaoko Udalak honako erabaki hau hartzen du:

- 1.- 2012ko uztailean, Estrasburgoko Giza Eskubideen Tribunalak, aho batez, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren 197/2006 doktrina (Parot doktrina gisa ezagutu dena), ez legezkoa eta oinarrizko eskubideen aurkakoa dela ebatzi ondoren, berau bertan behera uzteko eskatzen du udal honek. Ondorioz eta nazioarteko giza eskubideen legeria aplikatuz, 197/2006 doktrina aplikatu zaien euskal preso guztiak berehalakoan aske uzteko eskatzen dugu.
- 2.- Euskal Herrian bizi dugun itxaropen eta konponbide aukeraren aurrean, euskal presoaren aurkako salbuespeneko legeria bertan behera uzteko eskatzen du udal honek.
- 3.- Ebazpen honen berri, herritarrei eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako Komisionatua den Nils Muiznieks Jaunari ematea erabakitzen da."

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du mozioaren alde bozkatuko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du abstenitu egingo direla. Gehitzen du epaia errespetatzen dutela eta auzitegiak direla epai hori aplikatu behar dutenak; esaten du baita ere epai horri jarri zaion errekurso bat ere badagoela eta errekurso hori oraindik



erabaki gabe dagoela; esaten du baita ere mozioan azaltzen diren termino batzuekin ez daudela ados.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du politikoki baloratzen dutela EAJ alde bozkatzeari.

Gaia bozketan jartzen de eta Osoko Udal Bilkurak, aldeko 10 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), mozioa onartu egiten du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik Serna zinegotziari (PSE-EE) zuzentzen zaio lagun bat aurreko mozioaren gaiaren inguruan.

Serna zinegotziak erantzun egiten dio.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta sei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

